

## II

Arratsez, euzkia iltean,  
bertatik da edegi;  
ta geroz al orogaitik,  
ezin dau iñok itxi.

Baiña itargi burdian zut,  
betarte mirriz da igaro,  
sorgin baldar iduriko,  
mulu-mulu erio.

Leiar ninia da lauso,  
izar zuria itzali:  
len zabalik zan leioa  
danbada utsean da itxi.

## A R A D E R A

Naiz-ta ardiak marraztu  
Urkiola aizetsuan,  
epel naiz ozkirri,  
artzain abillen, gazte,  
esan eidak garbi:  
Anboto'ri bizkarka,  
Larrano baiño len,  
Asuntza'n bedar leuna  
ardiak ez daben.

Giñarre, azki, ote,  
an ba-dok ugari,  
zenbat-nai asetzeko  
ardi, bildots ta aari.  
Liliak be naikoa  
urre ta minbera;  
danetan begikoen  
nok ez aradera?

Naiz-ta ardiak marraztu  
ta ik oinpean zapal,  
larre lora usaintsua  
beti eder, apal.  
Gotzon egoz abil, ba,  
ene artzain gazte;  
ez egidak oinpean  
loitu larre-lore.

Lo kuluxka ba-dagik  
bazkari ostean,  
or daukak esku zuri  
jre jagonean.

Urrin ba-dok iñozka  
ames eio-arri,  
ur yagok zelai lore  
biotz alaigarri.

Bildotsak janez gero  
aren osto azi,  
ordekan darie gauez  
arnas usain eztzi.  
Ta iri, etxeratzean,  
andreak itauna:  
—«Nundik dok, maitea,  
dakarran usaiña?»

\* \* \*

Gotzon egoz abil, ba,  
ene artzain mazal;  
ez egidak oinpean  
aradera zapal.